

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako foru lege proposamen hau aurkeztu du: “Foru Lege proposamena, Ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan nahiz itunduetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasketetan eskolatzea arautzen duena”.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin honako foru lege proposamen hau: “Foru Lege proposamena, Ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan nahiz itunduetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasketetan eskolatzea arautzen duena”.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2018ko irailaren 24an

Lehendakaria:

Ainhoa

Aznárez

Igarza

## **Foru Lege proposamena, Ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan nahiz itunduetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasketetan eskolatzea arautzen duena**

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak eta Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren xedapen indardunek hezkuntza sistemaren antolamendu orokorra ezartzen dute gure herrialderako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, Konstituzioaren gaiari buruzko aurreikuspenen esparruan.

Zehazki, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren II. tituluaren III. kapitulua ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako eskolatzeari buruzkoa da, eta gai hori beste artikulua batzuetako aurreikuspenekin osatzen du, nola baitira ikasle-postuen eskaintzaren programazioari buruzkoak. Bada lege horrek, 84.1 artikuluan, honako hau ezartzen du: Hezkuntza arloko administrazioek halako moduan arautuko dute ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan onartzeko prozesua, non bermatuko baitira hezkuntzarako eskubidea eta gurasoek edo tutoreek berdintasunez eta askatasunez ikastetxea hautatu ahal izatea. Halaber, jasotzen du ezen, nolana ere, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak ikastetxeen artean era egokian eta orekatuan banatzea bilatuko dela.

Lege organiko beraren 109. artikulua, "Ikastetxeen sarearen programazioa" izenburua daramanak, 1. apartatuan honako hau ezartzen du: Plazen eskaintza programatzean, denek hezkuntzarako duten eskubidea, eta ikasleen, gurasoen eta tutoreen eskubide indibidualak bermatzeko botere publikoek duten betebeharraren ondoriozko eskakizunak bateratuko dituzte hezkuntza administrazioek.

Halaber, 2. apartatuan honako hau aipatzen du: hezkuntza administrazioek lege honetan doakotzat hartzen diren irakaskuntzen hezkuntza-eskaintza programatuko dute. Horretarako, ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen eskaintza hartuko da kontuan, baita hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua ere, horretarako aintzat hartuz irakaskuntzaren kalitatearen berme gisa, ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan dagoen eskaintza eta eskaera soziala. Hezkuntza administrazioek, halaber, plaza publiko nahikoak bermatuko dituzte.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 6. bis artikulua, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren artikulua bakarraren 5. idatz-zatiak ematen dion testuan, banatu egiten ditu hezkuntza-arloko legegintza-eskumenak eta zehaztu, curriculumaridagokionez, hezkuntza administrazioek Oinarriko Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko etapei buruz garatu ahalko dituzten zertzeladak.

Halaber, Kontuan hartuta zer xedatzen den 1105/2014 Errege Dekretuko 3. artikuluan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan eta abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuan –zeinaren bidez onetsi baitzen unibertsitateko ez bestelako irakaskuntzen arloan Estatuaren funtzioak eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea–, Nafarroako Foru Komunitateari eskumen osoa dagokio irakaskuntza guztia bere luze-zabalean arautu eta administratzeko, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, ezertan ukatu gabe arlo honi buruz Konstituzioko aginduetan ezarritakoa, agindu horiek garatzen dituzten lege organikoek xedatutakoa, ikasketan nahiz lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzearen gainean Estatuak eskumenak badituela eta baldintza horien betetze eta bermeari dagokionez Estatuak berea duela goi mailako ikuskapena.

Apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuak Unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itunduetako ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko arauak ezarri zituen. Aipatutako foru dekretuaren 2. artikulua ezarri zuen bertan ezarritakoa aplikatzeko Eskolatzeko Batzorde Nagusia sortuko dela, eta batzorde horrek foru dekretuaren 21. artikuluan ematen zaizkion eginkizunak izanen dituela, eta bere araudian zehaztuko dela nortzuek osatu behar duten; halaber, ezarri zuen tokiko eskolatzeko batzordeak eratu ahal izanen direla Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 86. artikuluan ezarrita dagoen moduan; batzorde horien kopurua, eginkizunak eta osiera erregelamendu bidez zehaztuko dira.

Apirilaren 23ko 35/2007 Foru Dekretuaren bidez apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretuan aurreikusitako Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta tokiko eskolatzeko batzordeak sortu ziren.

Gero, maiatzaren 9ko 40/2011 Foru Dekretuak, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta tokiko eskolatzeko batzordeak sortu eta arautu zituenak, helburu nagusi gisa du Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia arautzea, Hezkuntza Administrazioako organoa den aldetik, bai partaidetza sozialeko eta hezkuntza komunitateko organo gisa duen izaera, bai aholkularitza eta proposamen organo gisa dituen eginkizunak indartzeko.

8/2015 Foru Dekretua, zeinak aldatu baitzuen apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretua, Unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itundutako ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko arauak ezarri zituen, etorri zen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak, eskolatzeari lotutako hiru gaitan, egin zituen aldaketan ondorioz. Alde batetik, lehentasunezko irizpide berri gisa familia ugariaren legezko baldintza hartzea, zeina foru araudian irizpide osagarritzat hartuko baita, 235/2011 eta 236/2011 foru aginduetan ageri den bezala; bestetik, oraingoan ere lehentasunezko irizpideen barruan, familia-unitatearen urteko errentaren kontzeptuaren ordez familia-unitatearen per capita errentarena ezartzea; eta, azkenik, ikastetxe publikoetako zuzendarien eskumenak aldatzea, horiei esleituz ikasle onarpenari buruzko erabakiak hartzeko eskumena, eta ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluaren eskumenak aldatzea, hari esleituz ikasle onarpenari buruz informatzeko eskumena.

Otsailaren 4ko 8/2015 Foru Aginduak arautzen du Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozedura.

Azken urte hauetan hainbat aldaketa egin izanak berekin dakar nahiago izatea lege bat onets dadila, arau bakar batean jasota egon daitezen araubide orokorreko irakaskuntzetarako, gure Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan ematen direnetarako, onarpen-prozesuak; horrela, errazago egin nahi da herritarrek, ikastetxeek eta Administrazioak berak araua erabiltzea.

Hala eta guztiz ere, asmoa ez da orain arte Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan eskolatzeari buruz egon den araudia muturretik ordeztzea; izan ere, aurreko araupetzeari balioa eman eta, funtsean, hari jarraitutasuna eman nahi zaio, sar daitezkeen aldaketa egokiak barne hartuz; izan ere, horien bidez, Nafarroako Foru Komunitateko eskolatzeko prozesuan hobekuntza bat ekar dezaketen gai eta egokitzapenak jasotzea nahi da, horren bitartez segurtatzeko hezkuntza-sistemarako sarbidean ahal diren gardentasun, eraginkortasun eta efizientzia handienak lor daitezela, honako hauek uztartuz: familiek ikastetxea aukeratzeko askatasuna izatea; ikasle guztiak berdintasun baldintzetan eskolatzeko, eta hezkuntza kalitatea. Hori guztia, ikuspuntu formalean azpimarra jarritz gai honetan kontuan hartu beharreko araudi orokorra arau bakar batean biltzeko asmoan.

Nolanahi ere, ikastetxea hautatzeko aukera, aipatu berri duguna, ulertu beharra dago hezkuntza-laguntzaren beharra duten ikasleak ikastetxeetan egoki eta modu orekatuan banatuta egotearen esparruan; horrela, izan ere, guztientzako hezkuntza-kalitatea, gizarte-kohesioa eta aukeren berdintasuna bermatu nahi dira.

Aurrekoaren ondorioz, aldaketa batzuk sartu dira, eta egokitzat jo da onarpenerako irizpide osagarri bakartzat hartzea ikastetxetik hurbiltasun lineala, zeina orain arte zenbait ikastetxetan erabili izan baita; izan ere, familiek eta, oro har, hezkuntza-erkidego osoak modu positiboan hartu dute erabilera hori. Irizpide hori zehaztu izan da eskatzailearen bizilekuaren eta lehenengo tokian eskatutako ikastetxearen UTM koordinadekin. Distantzia lineal hori EDUCA eskola-kudeaketarako sistemaren sartutako geolokalizazio tresna batez zehazten da; tresna hori Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistemaren (SITNA) dago oinarrituta.

Ikuspuntu formaletik, berritasun aipagarriena da “eskolatzeko” terminoaren erabilera orokortu dela testuan, eta horrek aukera ematen duela prozedura horren izaera holistikoa eta zeharkakoa hobeki identifikatzeko; horrek, halere, ez dakar berekin ikasle onarpen-eskaeren hurrenkera hutsa ezartzea, zeren eta Konstituzioan aitortutako hezkuntzarako oinarriko eskubidearen enbor berekoa baita. Berritasun materialei dagokienez, lehenengo, komenigarritzat jotzen da balioan jartzea familiaren bizilekuaren hurbiltasunaren irizpidea, plangintzaren oinarri gisa eta herritarren beharrezanetarako erantzun gisa. Halere, ezinbestekoa den lanaren eta familiaren bateragarritasunari erreparatzen jarraitzen zaio; izan ere, laneko helbidea ere jasotzen da eskolatzeko irizpide gisa.

Hartara, bada, eskolatzeko lehentasunezko irizpideetako bat bizilekuaren edo lantokiaren hurbiltasuna da. Eskolak adingabearen ohiko ingurunean bete behar duen sozializazio-eginkizuna kontuan hartuta, ohiko bizilekuaren inguruko eskolatzeko errazten da, horrek sozializatzeari eta gizarteratzearen aldeetatik dakartzan abantailekin.

Halaber, lege honekin erraztu nahi da ikasgela bakoitzeko ikasle-ratioa pixkanaka gutxitzen joan dadila erkidegoko Haur Hezkuntzako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan, irakaskuntza jasangarria eta kalitatezkoa lehenetsiz; betiere, aintzat hartuta administrazioak eta erakunde sindikalek lortutako akordioak.

Jarduketa honek aukera emanen du hezkuntza-eredu inklusibo eta berritzaile bat egituratzeko, zeinak Nafarroako Foru Komunitatearen gizarte-eredu integratzaileari eta egituratzaileari erantzunen baitio eta interes eta arreta bereziak eskainiko baitizkio landa eskolari.

Bestetik, ezinbesteko baldintza bat da ikasleen integrazioa errazteko eta ikastetxeen normalizazioa erdiesteko, laguntzarako berariazko premiak dituzten ikasleen plazak esleitzerakoan. Horretarako, ikastetxea hautatzeko askatasuna uztartu beharra dago plazak banatzeko orekarekin, ratioen doikuntzarekin eta ikasleen eta ingurune sozialaren arabera ikastetxeek dauzkaten baliabideekin, betiere honako hauek bateragarri eginez: familiek ikastetxea hautatzeko daukaten askatasuna, ikasle guztiek berdintasun eta kalitate baldintzetan sarbidea izatea, eta hezkuntza-laguntzaren premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxeetan banatuta egotea modu orekatuan, bai eta baliabide publikoen erabileraren arloko efizientzia-printzipioa ere. Hori dela eta, ikastetxea hautatzeko askatasuna haztatu beharko da hezkuntza-laguntzaren beharra duten ikasleen banaketa egoki eta orekarekin, hezkuntzaren kalitatea, kohesio sozial handiagoa eta aukeren berdintasuna segurtatzeko.

Gaur egun, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen eskolatzeko erabatekoa lortu da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan; horrek aukera eman du hezkuntzarako eskubidea unibertzala egiteko hiru eta hamasei urteko adinen artean; hori dela eta, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren erantzukizuna da, nagusiki, segurtatzea hezkuntza-sistamarako sarbideak ahal diren gardentasun, eraginkortasun eta efizientzia handienak izan ditzan. Lege honek eskolatzeko batzordeen protagonismoa berreskuratu nahi du, batzordekideen egitekoa ez dadin izan soilik entzutea Administrazioak hartzen dituen erabakiak; izan ere, nahi dena da erabaki horietan guztiek batera parte hartzea.

## **I. KAPITULUA**

### **Xedapen orokorrak**

#### **1. artikulua.** Xedea.

1. Foru Lege honen helburua da ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetakoko ikasleen eskolatzeko-prozesuak arautzea Nafarroako Foru Komunitatean, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasketetarako.

2. Funtz publikoekin sostengatzen ez diren maila eta etapetakoko ikasleen onarpenera lege honetan ezarritakotik kanpo gelditzen da.

3. Lege honetan aurreikusitako gabeko irakaskuntzetako eta modalitateetako ikasleen onarpenak bere araudi berariazkoa izanen du; modu gehigarrian lege honetan jasotako arauak aplikatuko dira.

#### **2. artikulua.** Eskolatzearen bermea.

1. Derrigorrezko Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko adinetan dauden ikasleek eskubidea dute ikasle-postu bat edukitzeko irakaskuntza horietan, doako hezkuntza bermatzen diona.

2. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari dagokio aurreko paragrafoan aipatutako eskubidearen eraginkortasuna bermatzea, irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez eta eskola-postuen urteko eskaintzaren bitartez.

3. Gurasoek edo tutoreek eta, kasua bada, ikasle adindunek, ikastetxea aukeratu ahalko dute hezkuntza zerbitzu publikoa ematen duten ikastetxe publiko eta pribatu itunduen artean, testu honetan ezarritakoez beste mugarik gabe.

#### **3. artikulua.** Eskolatzearen baldintzak.

1. Ikastetxe batean onartua izateko, adinari lotutako baldintzak bete beharko dira, bai eta, kasua bada, ordenamendu juridiko indardunean sartu nahi den hezkuntza-mailarako eta ikasturterako exigitutako baldintza akademikoak ere.

2. Ezin izanen da eskolatzeko baldintza gisa ezarri ikastetxeetara sartzeko lege honetan jasotako proben edo azterketen emaitza. Hala eta guztiz ere, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzetan onartua izateko, kontuan hartuko da ikasleen espediente akademikoa, deialdia egiten duen urteko aginduan ezarritako baldintzetan.

#### **4. artikulua.** Bazterkeriaren debekua.

1. Ikasleak eskolatzeko prozesuetan, ez da diskriminaziorik izanen honako arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, edota beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, familiar edo soziala.

2. Arrazoi sozioekonomikoengatik diskriminaziorik ez dela egonen bermatzeko, ikastetxe publikoek eta itunpeko ikastetxe pribatuek ezin izanen dute, ezein kasutan, doako irakaskuntzak jasotzeagatik familien diru-kopururik jaso, ez eta ikasleen familiei fundazioetarako edo elkarteetarako ekarpenak egiteko betebeharra eta familia horiei ekarpen ekonomikoak egitea eskatzen dieten irakaskuntza-arloko nahitaezko zerbitzuak ezarri ere. Kategoria horretatik salbuetsita geratzen dira eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta eskola-zerbitzu osagarriak. Horiek, nolana ere, borondatezkoak izanen dira.

**5. artikulua.** Ikastetxeen hezkuntza proiektua eta izaera propioa.

1. Ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuaren edukiari buruz informatu beharko diete guraso edo tutoreei eta eskatzen duten ikasle adindunei; eduki horrek ez du inolako alderdi diskriminatzaile edo mugatzailerik izan.

2. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, ikasle bat ikastetxe publiko batean edo itunpeko ikastetxe pribatu batean matrikulatzeak ikastetxearen heziketa-proiektua errespetatu behar dela esan nahi du, legeetan ikasleei eta horien familiei aitortutako eskubideak eta lege honen 4. artikuluan ezarritakoa kendu gabe.

**6. artikulua.** Eskolatzeko-prozesuaren aplikazioa.

1. Ikasleen eskolatzeko-prozesua, lege honetan araututakoa, 1. artikuluan aipatutako ikastetxe eta irakaskuntzei lehenengo aldiz sartzen direnei aplikatuko zaie.

2. Ikasmilaz aldatzeak ez du eskolatzeko-prozesurik eskatuko, ikastetxez aldatzen ez bada.

3. Ikastetxe berean edo eskola-barruti berean irakasten diren eta araubide ekonomiko bera duten ondoko irakaskuntzek ez dute eskolatzeko-prozesurik eskatuko, Lanbide Heziketako heziketa zikloetara sartzeko kasuan izan ezik; izan ere, kasu horietan lege honen 34. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

**7. artikulua.** Atxikitako ikastetxeak.

1. Ikasleak eskolatzeko eraginetarako, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako bakoitza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten duen Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko bati edo gehiagori atxikitako dio, departamentu horrek ezarritako programazioari, prozedurei eta baldintzei jarraituz.

2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza itun-araubidearen barruan ematen ez duten Lehen Hezkuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen kasuan, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak onetsiko du Lehen Hezkuntzako zentro horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxe pribatuei atxikitzea, haien titularrekin ados jarrita eta aurreko paragrafoan aipatutako programazioari, prozedurari eta baldintzei jarraituz. Orobat eta aldi berean, erabakiko da itunpeko ikastetxe pribatuak ikastetxe publikoei atxikitzea, titularrei entzun ondoren.

**8. artikulua.** Ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle-kopurua:

1. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen kasuan, bai eta Hezkuntza Bereziko eta Batxilergoko irakaskuntzen kasuan ere, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako erreferentziaren barruan, ikasgela bakoitzeko ikasle-kopuruaren jaitsiera progresiboa ezarriko da, honako helburu honekin: Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ikasgela bakoitzeko gehienez 22 ikasle izatea; Lehen Hezkuntzako ikasgela bakoitzeko, gehienez 24 ikasle; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgela bakoitzeko, gehienez 27 ikasle, eta Batxilergoko ikasgela bakoitzeko, gehienez 30 ikasle.

2. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzarako ezarritakoa aplikatuko da, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxiengo baldintzak ezartzen dituen araudian xedatutakoaren arabera.

3. Batxilergoetan, ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle-kopurua Estatuko kasuko errege dekretuan edo horren ordezkari araudian xedatutakoa izan da.

4. Lanbide Heziketako heziketa zikloetan, ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle-kopurua hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren ordenamendu orokorra ezartzen duen erregelamenduak finkatzen duena izan da. Hala eta guztiz ere, ikastetxeak sortzeko eta baimentzeko xedapenetan xedatutakoari begiratuko zaio haien gaitasunari dagokienez, bai eta hezkuntza-sisteman Lanbide Heziketaren ordenamenduaren alderdiak garatzen dituen araudian xedatutakoari ere.

5. Aurreko lerroketan aipatutakoaren esparruan, eta hezkuntza programazioari jarraituz, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren arloko departamentu eskudunak, eskolatzeko-prozesua hasi baino lehen, irakaskuntza bakoitzari ikasgela bakoitzeko dagokion gehieneko ikasle-kopurua finkatuko du. Eskolatzeko-prozesuan zehar kopuru hori aldatu behar bada, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren ardura duen zerbitzuak, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren parte-hartzearekin, hura ikasleen eskolatzeko arloko eskumenak dauzkan zuzendaritza nagusiari aurkeztuko dio, onets dezan.

6. Aurreko prozedura ez da eskatuko ikasle-kopurua gainditzen denean ikasturtea errepikatu duten ikasleak egoteagatik edo behar bezala justifikatutako arrazoi bereziengatik, halakoek atxikipenaren zentro guztiak ukitzen ez badituzte. Kasu horietan guztietan, zerbitzu eskudunaren zuzendaritzak behar diren neurriak hartuko ditu ikasleen eskolatzeko zuzena segurtatzeko, eta ikasleen eskolatzeko koordinatzearen arloan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiari emanen dio neurri horien berri.

#### **9. artikulua.** Informazioa.

1. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak legeko tutoreei eta ikasleei informatuko die beren lurraldearen esparruan unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-zerbitzu publikoa ematen duten ikastetxeei buruz eta haietan eskuragarri dauden ikasle-postuei buruz. Horretarako, ikastetxe horien zerrenda emanen du argitara, bai eta ematen dituzten irakaskuntza-mailak eta eskaintzako doako zerbitzuak eta derrigorrezkoak ez diren jarduerak berezko dituztenak ere. Udalekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, lege honek aipagai dituen ikastetxeei buruzko informazio objektiboa segurtatuko dute, ikastetxea aukeratzeko eskubideaz baliatzea errazte aldera.

2. Herritarrei ikasleen eskolatzeko-prozesuari buruz behar den informazioa hurbiltzeko xedez, Hezkuntza Administrazioak informazio-bulegoak jarri ahalko ditu abian; haien kokapena prozesua hasi baino lehen emanen da ezagutzera. Honako hauek dira bulego horiek, kasua bada, beteko dituzten eginkizunak:

a) Bertatik bertarako informazioa ematea, aurrez hitzordua emanda nahiz telefonoz, ikastetxeen ezaugarriei buruz, baremoari buruz, eskaerak aurkezteko epeei buruz, inprimakia paperez zein internetez betetzeko moduari buruz, prozesuaren araudiari buruz eta eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari buruz, bai eta prozesuari buruzko beste edozein informazio ere, eskola-postu bat eskatzeko garaian familiei laguntzeko modukoa.

b) Postua eskatzeko inprimakia ematea eta, beharrezkoa bada, hura betetzen laguntzea.

c) Aurkeztutako eskaera bakoitza, gainerako dokumentazioarekin batera, lehenengo tokian aipatutako ikastetxeei bidaltzea, barematu eta izapidetu daitezten, bai eta Eskolatzeko Batzordeari ere.

3. Lege honek aipagai dituen ikastetxeek beren iragarki-oholean honako informazio hau erakutsiko dute:

a) Ikasleak lege honek aipatzen dituen ikastetxeetan eskolatzeko araudia.

b) Ikasle-postu hutsen aurreikusitako kopurua, eskolatzeko-prozesua zein ikasturtetarako den, ikasturte horretan ikastetxe horietan ematen diren ikasmailak bakoitzaren kasuan; ikasle-postu horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira.

c) Eskaerak egiteko epea.

d) Eskolatzeko prozesuaren egutegia, deialdiari buruzko urteko araubidean ezarritakoaren arabera.

4. Aurreko apartatuek aipatzen duten informazioak ezin izanen du, inoiz ere, jaso ikastetxean jada eskolatu dauden ikasleen familien maila sozioekonomikoari eta kulturalari buruzko inongo alderdirik.

5. Halaber, herritarrek informazioa lortu ahalko dute lege honen aplikazio-eremuan sartuta dauden ikastetxeen hezkuntza eskaintzari buruz unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren arloan eskuduna den departamentuko ikastetxeen atariaren bitartez.

#### **10. artikulua.** Bitarteko informatikoen erabilera.

1. Ikasleen eskolatzeko-prozesuaren kudeaketa egiten da unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren arloan eskuduna den departamentuaren sareko kudeaketa integralerako sistema informatiko normalizatuaren bitartez, eskolatzeko prozesuaren deialdiari buruzko araudian eta horri buruz ematen diren jarraibideetan ezarritakoaren arabera.

2. Interesdunek, informazio-eraginetarako eta eskaerak aurkezteko epeak dirauen bitartean, lege honen aplikazio-eremuan sartutako ikastetxe bakoitzaren ikasle-postuen eskaintza kontsultatu ahalko dute, ikasturtearen eta ikasmailaren arabera, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak horretarako ezarritako prozedura informatikoa erabiliz. Halaber, ikasle-postua eskatu ahalko dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erregistro telematikoen bitartez, lege honen 14.5 artikuluan aurreikusi bezala, eta bertan kontsultatu ahalko dute prozesua zein egoeratan dagoen.

## **II. KAPITULUA**

### **Eskolatzeko-prozedurak**

#### **11. artikulua.** Deialdia.

1. Urte natural bakoitzaren lehenengo lauhilekoan, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eskumenak dituen kontseilaritzak ikasleak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian eskolatzeko prozeduretarako dei egingen du, eta prozesuaren ondorengo ondoko faseen egutegia ezarriko da. Deialdi horrek eskaeraren inprimaki ofizialak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa jasoko ditu, bai eta beharrezkoak diren gainerako jarraibideak ere. Lege honek aurreikusten dituen gainerako irakaskuntzen kasuan, epe hori luzatu ahalko da, aparteko izaeraz, aipatutako lehen lauhilekotik aurrera ere.

2. Prozesuaren garapena bere izapide guztietan egokitu beharko zaio lege honetan, kasuko deialdian eta ematen diren garapenerako xedapenetan ezarritakoari.

3. Lanbide heziketako ziklotako eskolatzeari begira eta ikastetxeetako eskaintzaren berezitasunak eta ikasleen espediente akademikoa onarpenerako irizpide gisa baloratzea direla eta, deialdiaren urteko araudiak irakaskuntza hauetan aplikatuko den eskolatzeko-prozeduran aplikatzekoak diren berezitasunak ezarriko ditu.

#### **12. artikulua.** Erreserben debekua.

1. Deuseza izanen da ikastetxeak hartutako edozein konpromiso, prozeduratik eta ezarritako epeetatik kanpo eskola-postu bat erreserbatzea inplikatzeko duena. Gainera, berekin ekarri ahalko du lege honen VI. kapituluaren aurreikusitako prozedurei hasiera ematea.

2. Eskolatzeko-eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen, egiaztatu beharko da inongo ikastetxek ez duela alde aurretiko hautapenik egin. Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren arloko zuzendaritza nagusiak behar diren jarraibideak emanen ditu.

#### **13. artikulua.** Ikasle-postu hutsak zehaztea.

1. Ikastetxe horietako bakoitzean aurreikustekoak diren lanpostu hutsak zehazteari begira, horiek, eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen, deialdiaren aginduak xedatzen duenaren arabera, eskolatzeko arloan eskuduna den zerbitzuari komunikatuko diote ikasmaila bakoitzean zenbat ikasle-postu dauden beteta, eta eskura dauden ikasle-postu hutsen kopurua proposatuko dute, kontuan hartuta ikastetxean ikasmaila bakoitzari dagokionez aurreikusitako irakaskuntzen eskaintza.

2. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko eskolatzeko arloko zerbitzu eskudunaren burutzak, ikastetxeek egindako aurreikuspenak ikusita, datu horiek berretsiko ditu; edo, bestela, haiek zuzentzeari ekinen dio. Informazio hori ikastetxeei komunikatuko zaie eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko eskolatzeko arloko zerbitzu eskudunaren zuzendaritzak, eskolatzeko beharrak tarteko direla eta Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiari informazioa eman ondoren, eskaintza hori aldatu ahalko du; eskaintza ikastetxeei komunikatuko zaie, iragarki-oholetan argitaratu dezaten.

#### **14. artikulua.** Eskaera.

1. Aitek, amek, tutoreek eta, kasu bada, ikasleek, adindunak badira edo adingabe emantzipatuak badira, deialdiaren aginduan aipatutako epearen barruan, eskolatzeko-eskaeraren inprimaki ofiziala aurkeztuko dute, datuak beteta. Inprimaki hori doan eskuratuko da agindu horretan aipatutako tokietan. Eskaerarekin batera, nahitaez adinaren baldintzari buruzko egiaztagiria eta maila edo etapa bakoitzean exigitutako baldintza akademikoak betetzeko moduan egoteari buruzko egiaztagiria aurkeztu beharko dute. Halaber, aplikatzekoak den araudian ezarritako beste edozein dokumentazio aurkezteko beharra jaso ahalko du deialdiak.

2. Lege honen III. kapituluaren jasotako irizpideak barematzeko, eskaeran alegatu beharko dira, eta haiei buruzko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira; egiaztagiri horiek eskolatzeko-prozesuari buruzko deialdiaren urteko aginduan zehaztuko dira. Alegaziorik egiten ez bada, ez da kasuko epigrafeak edo dira kasuko epigrafeak barematuko.

3. Bizilekuaren hurbiltasunaren irizpidea aplikatzeko, aurreko apartatuan adierazitakoaz gainera, eskabidean familiako bizilekuaren edo laneko helbidearen arteko distantzia jaso beharko da, baremoa aplikatzeko ondoretarako. Aukera hori bakarra izanen da eskaeran adierazitako ikastetxe guztietarako.

4. Ikastetxek aldatzeko eskaeraren kasuetan, eskatzaileak eskola-postuaren erreserbari eutsiko dio jatorrizko ikastetxean, eskatutako ikastetxeetako batean behin betiko posturik lortzen ez duen bitartean, hurrengo artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik. Ikasle-postu berria behin betiko esleitzeak erreserba galtzea ekarriko du berekin. Hala eta guztiz ere, eskatzaileak postuaren erreserba horri uko egin ahalko dio, eskolatzeko-prozesuaren deialdiaren urteko aginduan adierazitako den bezala.

5. Eskaera lehengo aukera gisa aipatutako ikastetxean aurkeztu ahalko da, bai eta kasuko deialdi-aginduan jasotako tokietan ere. Halaber, Nafarroako Foru Komunitatek sortuko duen erregistro telematikoaren bidez aurkeztu ahalko dira eskaerak. Erregistro hori sortuko da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren titularraren aginduan eta ikasleen eskolatzeko-prozedurari buruzko urteko deialdian horretarako ezarritako moduan eta baldintzetan. Horri dagokionez, departamentuak laguntza-neurriak hartuko ditu erregistro telematikoaren erabiltzeko modernizatzeko administratiboko prozesu orokorraren barruan. Ikasleak heziketa zikloetan onartzeari buruzko kasuetan, eskaera eta dokumentazioa kasuko deialdi-aginduan jasotako tokietan aurkeztuko da.

6. Behin eskaera aurkeztuta, interesdunek eskubidea izanen dute kopia edo gordekin bat eman dakien, data eta zigilua dituen, eskaera egin izanaren ziurtagiri gisa.

7. Eskaerak aurkezteko epearen barruan, interesdunek beren eskabidea erretiratu ahalko dute lehenengo aukera gisa hautatutako ikastetxean idazki bat aurkeztuz. Halakoetan, ikastetxeak baja emanen dio eskaera horri, eta interesdunari aurkeztu zuen dokumentazioa itzuliko dio, haren kopia bat gordeta.

8. Ikastetxe bakoitzeko eskolatzeko organo eskudunak eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eskatzaileei eskatu ahalko diete eskaerak baloratzeko kontuan hartu diren egoerak edo inguruabarrak, kasua bada, egiaztatzeko behar den beste edozein dokumentazio. Halaber, udalei edo beste edozein organo administratibori eskatu ahalko diete behar den laguntza eman dezatela interesdunek aurkeztutako datuak egiazkoak direla bermatzeko. Eskabideak aurkezteak berekin dakar baimena ematea Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak beste entitate edo erakunde batzuei datuak eskatu ahal izateko.

#### **15. artikulua.** Anai-arrebak elkarrekin eta aldi berean eskolatzeko ikastetxe berean.

1. Gurasoek edo tutoreek, zenbait seme-alaba edo turoretzapekorentzat Haur Hezkuntzako bigarren zikloko edo Lehen Hezkuntzako ikasle-postua eskatzen duten kasuetan, aukera izanen dute horietako bakoitzarentzat eskaera bat aurkezteko –kasu horretan, eskaerak prozedura orokorraren bidez izapidetu eta ebatziko dira– edo anai-arrebak ikastetxe berean elkarrekin eta aldi berean eskolatzeko modaliterara biltzeko, hain zuzen ere artikuluko honetan aurreikusita dagoen horretara, betiere eskolatzeko-prozesuaren urteko deialdian jasotako jarraibideen arabera.

2. Anai-arrebak elkarrekin eta aldi berean ikastetxe berean eskolatzeko modalitate horretaz baliatzeak berekin dakar anai-arreba bakoitzaren ikasle-postuaren eskaerak elkarrekin lotuta egotea eta eskaera bakar baten gisara ebatzea, halako moduz non ikastetxeko onartzea ala bazter-uztea anai-arreba guztien eskaerari buruzkoak izanen baitira. Modalitate horri atxikitzeko, eskaera-formulario bakarra aurkeztuko da, deialdian zehaztutako den inprimaki ofizialaren arabera, kasuan kasuko hezkuntza-mailarako oro har ezarritako tokietan eta aurreikusitako dokumentazioarekin.

3. Zehazki, modalitate honek berekin ekarriko du honako berezitasun hauek egotea eskolatzeko-prozesu orokorrean.

a) Ikasle-postuaren erreserba galtzea anai-arrebetako bat edo guztiak funts publikoekin ordaindutako Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetatik datozenean.

b) Ikastetxe berak hautatzea eta hurrenkera berean anai-arreba guztientzat.

c) Anai-arrebak batera eskolatzeko eskaerak dauden ikastetxeetan, adin txikiena duen anai-arrebari dagokion mailatik hasiko da barematzen.

d) Adin bera duten anai-arreben kasuan, aurrez 34.2 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da, bai eta lege honen arau-garapenean berdinketa kasuetarako zehazten diren irizpideak ere.

e) Anai-arrebetako bat, onarpenari eta berdinketa-kasuei buruzko irizpideak aplikatu ondoren, ikasle postua lor dezakeenean lehenengo aukera gisa aipatutako ikastetxean, eskolatzeko arloko zentro eskuduneko organoak gainerako anai-arrebei ikastetxean matrikulatutako anai-arreben kasurako aurreikusitako puntuazioa emanen die, lege honen arau-garapenean zehaztutakoaren arabera, modu orokorrean dagokien puntuazioaz gainera.

f) Aurreko e) apartatuan aurreikusitakoa egin ondoren, anai-arreba guztiek ikasle-postua lortzen ez badute lehen aukera gisa adierazitako ikastetxean, guztiak ikastetxe horretan baztertu direla joko da, eta hala adieraziko da ikastetxeko behin-behineko zerrendetan eta, aldaketarik izan ezean, behin-betiko zerrendetan. Kasu horietan guztietan, anai-arreba guztiak aldi berean eskolatu dituzten Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, 20. artikuluan aipatutakoaren arabera, hurrengo g) paragrafoan adierazitako berezitasunarekin.



g) Aurreko apartatuko kasuetan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak edozein ikastetxetan anai-arreba guztiei emanen die kasuko ikastetxean jasotako puntuazio orokorra, lege honen arau-garapenean zehaztutakoaren arabera, modu orokorrean dagokien puntuazioaz gainera. Zuzendaritza Nagusiak anai-arreba guztiei ikastetxe bat adjudikatuko die, elkarrekin eskolatuta egotekoa, eskaeran adierazitakoen artetik edo, besterik ezean, eskolatzere-eremu berean. Adjudikazio horiek lege honen 20.5 artikuluan aipatutakoaren arabera argitaratuko dira.

4. Artikulu honen ondoreetarako, anai-arreben kontzeptua dela-eta 27.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

#### **16. artikulua.** Prozeduratik baztertutako eskaerak.

Prozedura honetatik baztertuko da edo baztertuko dira honako kasu hauetan aurkeztutako eskaera edo eskaerak:

a) Ikastetxe bererako edo ikastetxe desberdinetarako eskaera bat edo gehiago aurkezten denean, lege honen 14.7 artikuluan aurreikusitako uko-egitearen kasuan izan ezik. Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzetan, bikoiztasuna dagoela ulertuko da irakaskuntza eta maila berdinetarako eskaera bat baino gehiago aurkezten denean.

b) Deialdiaren urteko aginduan eskaerak aurkezteko ezarritako epeaz kanpo aurkezten denean.

c) Ikastetxe bakoitzean ikasleak onartzeko organo eskudunak aztarna arrazoitu eta nahikoak dituen interesdunak aurkeztutako dokumentazioa edo hartan islatutako datuak faltsuak izateari buruz.

d) Eskaera lege honetan edo kasuan kasuko deialdian adierazitako tokiez beste batzuetan aurkezten denean.

Kasu horietan guztietan, eskolatzea zuzenean eginen du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak, lege honen 20.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

#### **17. artikulua.** Eskaerak izapidetzea.

1. Eskaerak jasotzen dituzten ikastetxeek egiaztatu beharko dute zuzen bete direla eskaeran agertzen diren datu guztiak eta alegatutako inguruabarrak ziurtatzen dituzten agiri guztiak aurkeztu direla, baremoa aplikatzearen ondoreetarako.

2. Eskaerak onartzeko epea amaituta, ikastetxeek kasuko zerbitzuko burutzari igorriko diote prozesuaren deialdiko urteko aginduan zehazten den dokumentazioa.

3. Ikastetxe publikoetan, Eskola Kontseiluak ikasleen eskolatzeari hartuko du parte. Itunpeko ikastetxe pribatuetan, haien titularrak izanen dira ikasleen eskolatzeari buruzko araudi orokorra betetzearen ardura izanen dutenak, eta Eskola Kontseiluari egokituko zaio eskolatzere-prozesuan parte-hartzea, haren arauak betetzen direla bermatuz. Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan, eginkizun hori Gizarte Kontseiluak beteko du.

4. Ikastetxe batean jasotako eskaera guztiak onartzeko behar adina ikasle-postu huts baldin badago, eskatzaile guztiak onartu direla ulertuko da, hezkuntza-laguntzaren arloko berariazko premia duten ikasleen eskolatzereko ezarritako irizpideak kendu gabe.

5. Eskaeren kopurua erabilgarri dauden ikasle-postuen kopurua baino handiagoa den ikastetxeetan, behin eskaerak aurkezteko epea amaituta eta haiek barematu baino lehen, balizko berdinketak ebatzteko, zozketa publikoa eginen da, aurkeztutako eskaera guztiak antolatze aldera.

6. Zozketa Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eginen du, eta ez beste inork; horretarako, aldez aurretik, Eskolatzere Batzorde Nagusiaren adostasuna beharko du, eta, kasua bada, eskualdeko edo tokiko eskolatzere batzordeena.

7. Zozketa publikoa deialdiaren urteko aginduak ezartzen duen sistemarekin eginen da, eta bermatuko du eskatzaileek postua lortzeko probabilitate berak dituztela.

8. Aurreko apartatuetako zozketa egin ondoren, eskaera bakoitzari ezarritako baremoaren arabera lortutako puntuazioa esleitu zaio. Ondoren, ikasleak onartzeari ekinen zaio, lortutako puntuazioaren arabera, eskaintako eta argitaratutako ikasle-postu guztiak bete arte, hezkuntza-laguntzaren arloko berariazko premia duten ikasleentzat erabilgarri daudenak errespetatuta. Puntuazioan berdinketak gertatuz gero, lege honen 34.3 artikuluan jasotako irizpideak ordenan aplikatuz ebatziko dira. Kasua bada, zozketa publikotik atera den lehentasunari erreparatuko zaio.

#### **18. artikulua.** Behin-behineko zerrendak.

1. Ikasle-postu hutsen esleitzea amaituta, ikasmaila bakoitzean onartu diren eta onartu ez diren ikasle guztien zerrenda ordenatuak argitaratuko ditu Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak, eta haietan baremoan ezarritako irizpideak aplikatuta ikasle bakoitzari esleitutako guztizko puntuazioa jasoko da, bai eta anai-arrebak elkarrekin eta aldi berean eskolatzeko modalitateari bildutako kasuak ere; horretarako, betiere, aurretik adostasuna adierazi beharko dute Eskolatzeko Batzorde Nagusiak eta, kasua bada, eskualdeko edo tokiko eskolatzeko-batzordeek. Interesdun bakoitzak baremoko atal bakoitzean lortu duen puntuazioa kontsultatu ahal du horretarako ezarritako atarian, eskolatzeko-prozesuaren deialdian adierazitakoari jarraituz; hori, halere, ez da eragozpena izanen espediente eskuratzeko eskubideetarako, araudian eta deialdian aurreikusitakoaren arabera; halakoak, izan ere, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudia errespetatuz artatuko dira. Halaber, ikastetxe bakoitzak bere iragarki-oholean zerrenda bat argitaratuko du lege honen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera baztertu diren eskaerekin.

2. Zerrenda horiek behin-behinekoak izanen dira, eta haien aurka erreklamazioa aurkeztu ahal du Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuan, argitaratu eta biharamunetik hiru egun balioduneko epean idazki bat aurkeztuz. Ebazpena hurrengo hiru egun balioduneko epean argitaratuko da.

#### **19. artikulua.** Onartuen behin betiko zerrenda.

1. Behin aurkeztutako erreklamazioak ebatzita, ikasle onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Behin betiko zerrenda, puntuazioaren arabera ordenaturik, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuan edo udaletxean erakutsiko da, herrien eta ikastetxeen arabera antolatuz. Interesdun bakoitzak bere puntuazioa kontsultatu ahal du aurreko artikuluan adierazitako modu berean.

2. Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak, behin aurreko informazio hori ezagututa, ikasle-postuak adjudikatzeko prozesua irekiko du lehenengo aukera gisa adierazitako ikastetxean onartu ez diren ikasleentzat. Horretarako, hurrengo artikuluetan aipatutako prozedurari jarraituko zaio, salbu eta Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko kasuan; izan ere, oinarritzko, erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006ko Lege Organikoaren 41. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea eskatuko da.

3. Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 1147/2011 Errege Dekretuaren 47. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskatutako ikastetxean behar adina ikasle-postu ez dagoenean, eta erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetara sartzeko bide desberdinak badaudenez, deialdiaren aginduak sarbide bakoitzerako erreserbatutako ikasle-postuen ehunekoa ezarriko du, bai eta sarbide bakoitzaren barruko aukeren lehenespen-hurrenkera ere. Aukeretako batean erreserba betetzen ez bada, deialdiaren aginduak haiek gainerako erreserbei adjudikatzeko modua ezarriko du.

#### **20. artikulua.** Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko prozedura.

1. Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak zozketa bat eginen du berdinketa kasuan postu hutsen esleipena ordenatzeko, deialdiaren urteko aginduan adierazitako datan, eta bere iragarki-oholean behar den denborarekin argitaratuko du noiz eta non eginen duen zozketa hori. Zozketa lege honen 17. artikuluan ezarritakoaren arabera eginen da.

2. Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak, interesdunek beren eskaeretan adierazitako aukeren artetik postu hutsak dauden ikastetxeetako postuak esleituko ditu, aintzat hartuz eskaeran aukeratu duten helbidea. Baremoa aplikatuz lortutako puntuazioa hartuko da kontuan, eta berdinketa kasuan, zozketaren emaitza. Anai-arrebak elkarrekin eskolatzeko kasuetan, ikastetxean anai-arreben puntuazioa aplikatuko zaie, 15. artikuluan eta lege honen arau-garapenean adierazitakoari jarraituz, ikastetxean matrikulatutako anai-arrebak egoteari edo ikastetxean lan egiten duten gurasoak edo tutoreak egoteari dagokienez. Garatutako irizpide hori soilik barematuko da lehen aukera gisa adierazitako ikastetxean. Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako eta derrigorrezko irakaskuntzetarako postu-eskaeren kasuan, eskaeran adierazitako ikastetxean postu hutsik ez badago, postua adjudikatuko da kontuan hartuz, berriz ere, adierazitako helbidea, betiere ikasle-postu hutsik badago; bestela, hurrengo artikuluan xedatutakoari begiratuko zaio.

3. Anai-arrebak elkarrekin eta aldi berean eta ikastetxe berean eskolatzeko 16. artikuluan aurreikusitako modalitatearen alde egin ez duten gurasoek edo tutoreek, 19. artikuluko zerrendak argitaratzen direnean, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuari eskatu ahal duite anai-arrebak ikasle-postu hutsak dauden ikastetxe bakar batean bil ditzan. Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak eskari horiek ebatziko ditu oraindik ere eskola-postua esleitu ez zaien beste eskatzaile batzuen eskubideak kaltetu gabe.

4. Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako eta derrigorrezko irakaskuntzetarako ikasle-postuen eskaerak, lege honen 16. artikuluko a), c) edo d) apartatuetan aurreikusitako kasuetako bat betetzen dutenak, aurreko prozesua amaituta artatuko dira. Haietan jasotako lehentasunak soilik hartuko dira kontuan baliagarri dauden ikasle-postu hutsei dagokienean.

5. Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak egindako adjudikazioak ere agertzeraz emanen dira, deialdian adierazitako datan, eskatzaileek lehen aukera gisa adierazi zuten ikastetxeetako iragarki-oholetan, bai eta ikasle-postua lortu duten ikastetxeetan ere.

6. Ez dira kontuan hartuko eskatu ez diren ikastetxeei buruzko erreklamazioak.

**21. artikulua.** Ebazteko gelditu diren eskaerak.

Aurreko artikulua aipatzen duen fasea amaituta, oraindik ere artatu gabeko eskaerarik badago, Hezkuntzako zuzendari nagusiak behar diren neurriak hartuko ditu Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikasleen eskolatzeari segurtatzeko, urgentzia-arrazoia tarteko.

**22. artikulua.** Ikasleen matrikulazioa.

1. Ikasleen matrikulazioa dagokien ikastetxeetan eginen da, eskolatzeari buruzko deialdiaren urte aginduan aurreikusitako epeetan. Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak, beharrezkoa den kasuetan, matrikulaziorako epe berezi bat ireki ahalko du; hori, nolahi ere, departamentuko iragarki-oholean argitaratu beharko da eta ikastetxeei komunikatu beharko zaie.

2. Matrikularako epea amaituta hura egin ez bada, lortutako ikasle-posturako eskubidea galduko da.

3. Atera diren lanpostu hutsak adjudikatu ahal izateko, irakaskuntza-jarduerak hasi arte, ikastetxeek Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuari komunikatu beharko dizkiote matrikulatutako ikasleen bajak, haiek gertatu eta hurrengo egun baliodunean. Ikasle-postu horiek direla-eta itxaron-zerrendan dauden familien asmoak bertan behera geldituko dira, nolahi ere, ikasturteko irakaskuntza-jarduerak hasten direnean. Heziketa zikloen kasuan, Lanbide Heziketako ikasleak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan matrikulatzeari buruzko araudian ezarritakoari begiratuko zaio.

4. Behin ikastetxeetako kasuko matrikula-epea amaituta, Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuaren sareko kudeaketa integralerako sistema informatiko normalizatuan gaurkoturik eduki beharko dituzte haien datuak, sistema horrekin kudeatzen baitira eskolatzeari buruzko prozesuak.

5. Ikasleak derrigorrezko irakaskuntzan ez matrikulatzeak kasuko erantzukizunak ekarriko ditu, kasua bada.

**23. artikulua.** Deialdian finkatutako aurkezpen-epea amaituta aurkeztu diren eskaerak.

1. Artikulu honek aipagai dituen eskaerak Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak onetsitako xedapenetan aipatzen diren moduan eta tokietan aurkeztuko dira, departamentuko iragarki-oholean erakutsiko dira eta ikastetxeei komunikatuko zaizkie.

2. Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak eskaera horiei ikasle-postua adjudikatuko die haien sarrera-hurrenkeran edo izaera sozioekonomikoko edo akademikoko beste irizpide batzuk, eskolatzeari buruzko deialdiaren urteko aginduan finkatutakoak, aplikatuz, betiere matrikula-epeen ondorengo hutsik gelditu diren ikasle-postuen arabera. Ikasle-postu hutsak egonez gero, eskatzaileen lehentasunak hartuko dira kontuan. Adjudikazioari buruzko ebazpenean, matrikula-epea aipatuko da.

3. Ez da ikastetxez aldatzeko eskaerarik izapidetuko herri edo/eta eskolatzeari buruzko eremu beraren barruan, jatorrizko eskaera-inprimakian jaso ez ziren ikastetxeetara joateko, ez eta aldaketa hori ekarri duten arrazoia behar bezala justifikatzen ez dituztenak ere; izan ere, horiek Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuak baloratuko ditu. Helbide-aldaketa baten ondoriozko eskaeren kasuan, zeinetan eskolatzeari buruzko eremua aldatu baita, edo ustekabeko inguruabar berezien ondoriozko kasuetan, aipatutako inguruabarra ziurtatu beharko da.

### **III. KAPITULUA**

#### **Eskolatzearako irizpideak**

**24. artikulua.** Baremoa.

1. Ikastetxe batean sartzeko eskari guztiak artatzeko behar adina ikasle-postu huts ez dagoenean, eskaeren baremoa egiten da lehentasunezko irizpideak eta kapitulu honetan ezarritako irizpide osagarria aplikatuz, betiere lege honen arau bidezko garapenaren arabera barematurik.

**25. artikulua.** Atxikitze kasuko aplikazioa.

1. Eskolatzeko ondoretarako beste ikastetxe batzuei atxikita dauden ikastetxeak, etapa desberdinak irakasten dituztenak, ikastetxe bakartzat hartuko dira soilik lege honetan aurreikusitako irizpideak aplikatzeko.

**26. artikulua.** Lehenetsuneko irizpideak.

Honako hauek dira lehenetsuneko irizpideak:

- a) Ikastetxean matrikulatuta dauden anai-arrebak egotea.
- b) Familiaren bizilekua hurbil egotea.
- c) Ikastetxean lan egiten duten gurasoak edo legezko tutoreak egotea, eta gurasoetako edo legezko tutoreetako baten lantokiaren hurbiltasuna.
- d) Ikaslea edo gurasoetako batek, tutoreetako batek edo anai-arrebetako batek desgaitasuna edukitzea.

**27. artikulua.** Ikastetxean matrikulatutako anai-arrebak egotea edo gurasoek edo legezko tutoreek ikastetxean lan egitea.

1. Baremoa aplikatzearen ondoretarako, honako hauek hartuko dira anai-arrebatzat:

- a) Tutoretzako edo legez eraturako familia-harrera edo adopzio aurreko harrera iraunkorreko egoeran dauden pertsonak, familia unitatearen barruan.
- b) Bikote ezkonduak edo legedi indardunaren arabera izaera hori duten ezkondu gabeko bikote egonkorrek osatutako familien seme-alabak, seme-alaba komunak izan gabe ere.

Ulertuko da eskatzaileak ikastetxean matrikulatutako anai-arrebak dituela lege honetan jasotako irakaskuntzetako batean matrikulatuta daudenean eta hurrengo ikasturtean ikastetxe berera joaten jarraitu behar dutenean.

2. Ikastetxean lan egiten duten gurasotzat edo legezko tutoretzat hartzeko, beharrezko izanen da eskolatzeko prozesua hasi baino lehen lan egin dezatela ikastetxeko instalazioetan lan-kontratupeko araubidean edo funtzionario-araubidean, eta eskolatzeko eskatzen duenaren harreman horrek ikasturtean zehar iraun dezala.

**28. artikulua.** Gurasoen edo legezko tutoreen familia-bizitokia Ahaideak edo lantokia hurbil egotea.

1. Familiako bizilekuaren edo lantokiko helbidearen hurbiltasuna hurbiltasun linealaren arabera haztatuko da, eskatzailearen familiako bizilekuaren edo laneko helbidearen katastroko lurzatiaren erdigunearen eta eskatutako ikastetxea kokatuta dagoen katastroko lurzatiaren erdigunearen artean kalkulaturako aipaturako distantzia linealaren inguruabartzat hartzearen ondoretarako. Helbideetako katastroko lurzatiaren zehaztapena katastroaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusian jasotakoa izanen da. Distantzia lineal hori izanen da eskatzailearen bizilekuaren eta lehenengo tokian eskatutako ikastetxearen UTM koordenaden artekoa. Distantzia lineal hori EDUCA eskola-kudeaketarako sisteman sartutako geolokalizazioko tresna batez zehazten da; tresna hori Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sisteman (SITNA) dago oinarrituta.

2. Hurbiltasun linealaren inguruabar hori zein udalerritan aplikatuko den zehazteko, bai eta distantzia horren kuantifikazioak ere, kontuan hartu beharko dituzte haien aplikatuko diren eskolatzeko-eremuaren hirigintza-eremuak eta populazio-parametroak, bai eta ikastetxeen kokapena ere; urtero, eskolatzeko-eremuaren aginduak zehaztuko du hurbiltasun lineala zein udalerritan haztatuko den, eta, horretaz gainera, haztatzearen inguruabar hori aplikatzeko aintzat hartuko den gehieneko distantzia, bai eta hura zein irakaskuntzatan, etapatan eta hezkuntza-mailatan aplikatuko den eta behar diren gainerako jarraibideak ere.

3. Hurbiltasun linealaren inguruabar hori soilik aplikatuko da lehengo aukera gisa hautatutako ikastetxean.

4. Hurbiltasun linealaren distantzia soilik aplikatu ahalko da Haur Hezkuntzako ikastetxetako eta derrigorrezko irakaskuntzetako eskolatzeko-prozesuetan, eta ezin izanen zaie aplikatu hezkuntza bereziko irakaskuntzei.

5. Familiaren bizileku edo laneko helbide bakoitzaren eta hurbiltasun lineala iristen deneko ikastetxeen arteko hurbiltasun linealaren inguruabarra dela eta, herritarrek kontsulta egin ahalko dute Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren ikastetxeei buruzko atarian. Atari horretara web-orriaren bidez sartu ahal da eta sarbide hori emanen da eskabideak aurkezteko epea hasi baino lehen eta prozesu horrek irauten duen aldi osoan. Halaber, urteko eskolatzeko-prozesuan parte hartzen duten ikastetxeek baremazioaren inguruabar hori aintzat hartzearen berri eskatzen duten familiei eman beharko diete.

6. Ikaslearen beraren bizilekua edo lantokiaren helbidea, bidezkoa bada, eskatzaileak eskatuta hartuko da aintzat Batxilergoko irakaskuntzetan onartua izateko.

**29. artikulua.** Bizilekua zehaztea.

1. Lege honetan aipatutakoaren ondoreetarako, familiaren bizilekua zehazteko kontuan hartuko dira Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa eta Kode Zibila –familia-agintaritza edo gurasoek guraso ahala galtzearen kasuetan izan ezik, halakoak behar dokumentu bidez adierazita–, eta ulertuko da adingabeen eta emantzipatu gabeen bizilekua honako hauetako bat izanen dela: a) familia-agintaritza edo guraso-ahala duen gurasoetako batena; b) epaileak jagoletza esleitu dion aitarena edo amarena, banantze edo dibortzio kasuetan edo ezkontza deuseztatu denean; c) legez familia-agintaritza edo guraso-ahala duen tutorearena.

2. Hori dela eta, eskolatzearen ondoreetarako, ez da bizileku gisa hartuko senide edo ahaideena, inongo gradu edo odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasunetan. Lege honetan ezarritakoaren ondoreetarako, ez da familiaren bizilekua aintzat hartuko espedientearen ageri den dokumentazioaren osotasunetik ondorioztatzen denean alegatutako bizilekua ez datorrela bat familia-unitatearen ohiko bizilekuarekin.

3. Interesdunek aurkeztutako dokumentazioan edo hartan islatutako datuetan faltsutasuna egotearen aztarna arrazoitu eta nahikoak badaudela ikusten den kasuetan, ikastetxe bakoitzeko eskolatzeko organo eskudunari eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuari egokituko zaie eskatzaileei eskatzea beharrezkoa den dokumentazioa, aurreikusitakoaren arabera. Faltsutasuneko jokabide horiek aintzat hartuz gero, horrek berekin ekarriko du lortutako ikasle-postua galtzea, eta Administrazioak ofizios adjudikatuko du ikasle-postu bat prozesu arruntaren amaieran, lege honen 16. artikuluan aurreikusi bezala.

**30. artikulua.** Ikaslea edo gurasoetako edo anai-arrebetako bat ezgaitua izatea.

Desgaitasuna dagoela ulertuko da % 33ko edo goragoko minusbaliotasun-gradua aitortu den kasuetan, desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, bazterkeria-ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko indarreko legedian ezarritakoari jarraituz.

**31. artikulua.** Irizpide osagarria.

Aurreko artikuluek aipatzen dituzten lehentasunezko irizpideez gainera, ikasleen eskolatzean familia ugariako kidea izatearen irizpide osagarria aplikatuko da; irizpide hori baloratuko da araudi indarduneari aurreikusita dauden familia ugarien kategoria desberdinen arabera.

Aintzat hartuko dira gurasobakarra izatearen egoerak, eta horien barruan, familia ugariak babesteko araudiak berariaz babestuta dudenak, eta haien parekotzat hartuko dira araudi horrek ezarritako baldintzetan.

**32. artikulua.** Ikasleak Batxilergoan onartzeko irizpideak.

Batxilergoko irakaskuntzetan onartzeari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 85.1 artikuluari jarraituz, aurreko artikuluetan ezarritako irizpideei ez ezik, ikasleen espediente akademikoari ere begiratuko zaio. Espediente hori barematuko da lege honen arau-garapenean ikasleak Batxilergoan onartzeko adierazitakoari jarraituz.

**33. artikulua.** Lanbide Heziketako heziketa zikloetan ikasleak onartzeko irizpideak.

1. Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa zikloetan ikasleak onartzeko prozeduretan, behar adina ikasle-postu ez dauden kasuetan, lege honen 19.2 artikuluan Oinarrizko, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako zikloetara sartzeari buruz ezarritakoari erreparatuko zaio.

2. Maiatzaren 3ko 2//2006 Lege Organikoaren 85.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, ikasleak Lanbide Heziketako erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetan onartzeko prozeduretan, behar adina ikasle-postu ez dagoenean, espediente akademikoari eta Lege Organikoak ezarritako irizpideei begiratuko zaie, lege honen 19.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**34. artikulua.** Puntuazioa eta berdinketak.

1. Ikasleen puntuazioak, aipatutako barema aplikatuz lortutakoak, erabakiko du ikasleak onartzeko hurrenkera.

2. Adin bera duten anai-arreben kasuan, baremoa aplikatutako puntuazio bera lortzen baldin badute, puntuazio altuena adin bera duten gainerako anai-arrebei ere aplikatuko zaie.

3. Gertatzen diren berdinketak, halakorik izanez gero, ebatziko dira, kasua bada, berdinketarako ezartzen diren irizpideak aplikatuz, ondoren aipatzen ditugun irizpideak erabiliz:

a) Batxilergo sartzeko kasuan, garatu beharreko baremoan ezarritakoaren arabera lortutako batez besteko nota handiena.

b) Ikastetxean matrikulatutako anai-arrebak edo ikastetxean lan egiten duten gurasoak izateagatik puntuazio handiena. Ikastetxean anai-arrebak matrikulatuta edukitzeko kasuaren eta 15. artikuluan jasota dagoen anai-arrebak elkarrekin eskolatzeko kasuaren artean berdinketa egonez gero, lehentasuna emanen zaie ikastetxean matrikulatutako anai-arrebak dauzkaten eskatzaileei.

c) Bizilekuaren hurbiltasunarengatik puntuazio handiena izatea. Hurbiltasun linealaren inguruabarra aplikatzeko den herrietan, hurrengoak aplikatuko dira ondoz ondo eta hurrenkera honetan:

c.1) Hurbiltasun linealaren kontzeptuaren barruan eskatzaileak soilik lehen aukera gisa eskatutako ikastetxea daukan kasuak.

c.2) Helbidea lehen aukera gisa eskatutako ikastetxeko eskolatzeko barrutikoa izatea.

d) Desgaitasuna izateari buruzko atalean puntuazio handiagoa izatea.

e) Familia ugariako kidea izateari buruzko atalean puntuazio handiagoa izatea.

f) Eskola Kontseiluan egindako zozketa.

Adin bera duten anai-arreben kasuan, horietako batek ikasle-postua eskuratzeak berekin ekarriko du anai-arreba horiek ikastetxe berean eskolatzeko, eta lehentasuna izanen dute hurrenkera ondoren datozenen aurretik, ikasleen gehieneko muga gaindituz gero.

4. Aurreko atalak aipatzen dituen berdinketa kasuetarako irizpideak adierazitako hurrenkeran erabiliko dira, berdinketa ebatzen den unera arte.

#### IV. KAPITULUA

##### **Berriazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen eskolatzea**

**35. artikulua.** Printzipio orokorrak.

1. Guztientzako hezkuntza-kalitatea, gizarte-kohesioa eta aukera-berdintasuna ziurtatzeko, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-laguntzaren berriazko premia duten ikasleen eskolatze egokia eta orekatua bermatuko du.

2. Kapitulu honetan aipatzen diren neurriak hartzerakoan aintzat hartuko dira kasuko eremuko egoera sozioekonomikoa eta demografikoa eta hezkuntza-laguntzaren arloko berriazko beharrak dituzten ikasleen egoera pertsonala edo familiara.

3. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ezarriko du ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako bakoitzean eskolatu beharreko ikasleen proportzioa. Ondore horietarako:

– Ikasle-postu hutsak zehazterakoan, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak matrikula-aldiaren amaierara arte ikasle horiek artatzeko eskola-unitate bakoitzeko hiru ikasle-postu bitarte erreserbatu ahalko ditu. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, Eskolatze Batzorde Nagusiari entzun ondoren, zenbateko hori egokitu ahalko du, aurreko apartatuan adierazitakoari jarraituz.

– Haur eta Lehen Hezkuntzan deialdian adierazitakoa baino hezkuntza-laguntzaren beharra duten ikasle matrikulatuen portzentaje handiagoa duten ikastetxeek ez dute ikasle horietarako ikasle-postu hutsik eskainiko egoera horren irauten duen bitartean, betiere herriko edo eskolatze barrutiko hezkuntza-eskaintzak horretarako bidea ematen bada.

– Halaber, ikastetxe horietan Departamentuak arau-mekanismo batzuk sustatu beharko ditu Haur Hezkuntzako lehen zikloko azken urteko eskolatze aurreratua errazteko; horretarako, ikastetxe horiei behar diren baliabide pertsonal eta materialak emanen dizkio, eskolatze hori doakoa izan dadin. Kasu horietan, adjudikatutako eskola-postuak errespetatu egingen dira Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako.

– Hezkuntza-laguntzaren beharri dagokionez, ikasgela bakoitzeko ikasle-ratio desberdinak aurreikusi ahalko dira herri edo eskolatze-barrutietan; are barruti beraren barruko ikastetxeetan ere. Hartara, ikastetxe jakin batzuetan hezkuntza-laguntzaren beharra duten ikasleen portzentaje handiagoa badagoen ala ez begiratuta, eskolatze-prozesuaren deialdiari buruzko urteko aginduak aurreikusi ahalko du, kasu bada, ikastetxe horietan ikasgela bakoitzeko ikasleen kopurua txikiagoa izatea oro har kasuko irakaskuntza-mailarako ezarrita dagoena baino.

4. Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko kasuan, lege honen 19.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

**36. artikulua.** Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak normalizazio- eta txertaketa-printzipioei jarraiki eskolatuko dira. Eskolatzeak ikasle horien diskriminaziorik eza eta hezkuntza-sisteman sartzeko eta irauteko berdintasun eraginkorra ziurtatuko du eta, beharrezkoa izanez gero, hezkuntza-etapak malgutzeko neurriak hartu ahal izanen dira.

2. Hezkuntzako zuzendariak neurri egokiak ezarriko ditu lehentasunezko arretarako ikastetxeetan berriazko desgaitasunen bat duten ikasleak eskolatze.

3. Entzumenaren, mugimenduaren edo beste desgaitasun berriazko batzuen arloko gabeziaren batekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako lehentasunezko arretarako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat erreserbatutako ikasle-postuak soilik bete ahalko dituzte hala patologien diagnostikoa duten eskatzaileek, kasuko Hezkuntza Zerbitzuko zuzendariak ebatzen bidez hala aitortuta; salbuespena izanen da zuzendari nagusiak behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko berriazko baimena ematen duenean. Zuzendaritza Nagusiak, programazio orokorraren esparruan, bilatuko du funts publikoekin sostengatutako eskaintzaren osotasunean behar adina ikasle-postu egotea aurreikusitako beharriari aurre egiteko.

**37. artikulua.** Hezkuntza bereziko unitateetako edo ikastetxeetako eskolatzea.

1. Desgaitasuneko edo jokabidearen nahaste larriko baldintza pertsonalekin lotutako hezkuntza-premia iraunkorrak dituzten ikasleen kasuan, eskolatzea ikasle horiei berariaz zuzendutako antolamendu-moduak dauzkaten eta lanerako metodo eta jarduerak garatzen dituzten hezkuntza bereziko unitate edo ikastetxeetan eginen da, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretari buruzko araudi berariazkoan ezarritakoari jarraituz. Eskolatze hori gauzatuko da ikasle horien premiei erantzun ezin zaienean ikastetxe arruntek aniztasunarekiko arretarako hartzen dituzten neurrien esparruan.

2. Ikasleak hezkuntza bereziko unitate edo ikastetxeetan eskolatzeko arestian aipatutako arau orokorrak erabiliko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Oro har ezarritako baldintzez gainera, hezkuntza bereziko zentroetan eskolatzeko modalitatea ziurtatu beharko da, zerbitzuko zuzendari eskudunaren ebazpen baten bitartez.

b) Eskolatze-irizpideak aurreko kapituluan orokorrean ezarritakoak izanen dira. Hezkuntza bereziko ikasgela bat ez duten herrietatik datozen ikasle eskolatu berriak ikaslearen bizilekuaren herria edo barrutia hartzen duten garraio-ibilbideak antolatuta dauzkaten ikastetxe publikoei erreserbatu ahalko ditu, Departamentuaren hezkuntza plangintzaren barruan.

c) Ikastetxe eta unitate horietarako sarbidean, sartu berriak diren ikasleek lehentasuna izanen dute jada eskolaturik dauden eta ikastetxez aldatzea eskatzen dutenen aurretik.

3. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzetarako, urteko deialdiaren aginduan erraztasunak emanen dira Hezkuntza Bereziko zentro batean matrikulaturik dauden ikasleen anai-arrebak eskolatzeko funts publikoekin sostengatuta egon eta zentro horietatik hurbil dauden ikastetxeetan, baldin eta eragin-eremu edo herri berean badaude; betiere, bi zentro horiek zentro bakartzat hartuko dira baremoa aplikatzearen ondoreetarako.

## **V. KAPITULUA**

### **Eskolatze-bermeetarako batzordeak**

#### **38. artikulua.** Eraketa.

1. Hezkuntza-maila berean funts publikoekin sostengatutako ikastetxe bat baino gehiago dituzten herrietan, Hezkuntza Departamentuko Zuzendaritza Nagusiak beharrezkotzat jotzen dituen eskolatze-bermerako batzordeak eratuko ditu, eskolatze-prozesua zuzen garatzen dela bermatzeko.

2. Batzorde horiek eraturik egon beharko dute eskolatze-prozesuaren deialdiari buruzko urteko aginduan aipatutako datan; data hori, nolana ere, ez da izanen ikasleak onartzeko eskaerak aurkezteko zehaztutako epearen hasiera baino lehenagokoa.

#### **39. artikulua.** Kideak eta funtzionamendua.

1. Eskolatze-bermerako batzordeek honako kide hauek izanen dituzte:

a) Hezkuntzako ikuskatzaile bat, zuzendari nagusiak izendatua. Bera izanen da batzordeko burua.

b) Kasuko hezkuntza-mailako ikastetxe publikoetako bi zuzendari, zozketa bidez hautatuak.

c) Kasuko hezkuntza-mailako itunpeko ikastetxe pribatuetako bi zuzendari, zuzendari nagusiak izendatuak sektorea ordezkatzen duten erakundeek proposatuta.

d) Kasuko udalbatzetako bi ordezkari.

e) Irakaskuntza publikoaren eta itunpeko irakaskuntza pribatuaren mahai sektorialetan ordezkariak izendatzen duten erakunde sindikaletako bakoitzaren ordezkari bat, irakasleen ordezkari.

f) Irakaskuntza publikoko ikasleen gurasoen ordezkari bat, sektorean ordezkariak izendatzen duten erakundeek proposatuta.

g) Itunpeko irakaskuntza pribatuko ikasleen gurasoen ordezkari bat, sektorean ordezkariak izendatzen duten erakundeek proposatuta.

h) Zerbitzuko bi ordezkari, Hezkuntzako zuzendari nagusiak izendatuak.

2. Batzorde horien osaketa, Lanbide Heziketako heziketa zikloetan, deialdiaren urteko aginduan zehaztuko da.

3. Eskolatze-bermeetarako batzordeetako buruak batzordeko kideetako bat hautatuko dute idazkari jardun dezan.



4. Beren eginkizunak betetzeko, batzordeak bilduko dira beren lehendakariak deialdia egiten duen guztietan edo gutxienez ere kideen erdiak eskatzen duenean. Nolanahi ere, aginduzkoa izanen da hiru bilera hauek egitea: bata eskolatzeko-prozesua hasi baino lehen, hezkuntza-eskaintza ezagutzeari begira; bestea, prozesuaren garapenean, eta azkena prozesua amaitzerakoan.

5. Berariaz aurreikusita ez dagoen guztian, kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzko administrazio-prozeduraren foru araudian xedatuari begiratuko zaio.

**40. artikulua.** Eskudantziak.

1. Eskolatzeko-bermeetarako batzordeek honako eskudantzia hauek izanen dituzte:

- a) Hezkuntza Administrazioarekin batera parte hartzea eskolatzeko-prozesuaren garapenean.
- b) Ikasleen eskolatzeko-prozesua eta hari buruzko arauak betetzen direla gainbegiratzea.
- c) Hezkuntza-eskaintza ezagutzea prozesua hasi baino lehen.
- d) Informazioa jasotzea eskolatzeko-prozesuaren garapenari buruz.
- e) Beren eginkizunak betetzeko beharrezkoa den informazio eta dokumentazio guztia jasotzea. Informazio hori Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak emanen die.
- f) Aginduzko txostenak ematea Hezkuntza Administrazioari eskolatzeko-eremuei buruz.
- g) Ikasleen eskolatzeari buruzko beste edozein neurri proposatzea.
- h) Ordenamendu juridikoak esleitutako gainerakoak.

2. Eskolatzeko-bermeetarako batzordeek beren eskudantziak beteko dituzte eratu zireneko ikasturte osoan zehar.

**41. artikulua.** Ikastetxe publikoetako eskola kontseiluen erabakien aurkako errekursoak.

Ikastetxe publikoetako eskola kontseiluek ikasleen eskolatzeari buruz hartzen dituzten erabakien aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko zaio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiarri; errekurtsu horren ebazpenak amaiera emanen dio bide administratiboari.

**42. artikulua.** Itunpeko ikastetxe pribatuetako titularren erabakien aurkako erreklamazioa.

Itunpeko ikastetxe pribatuen kasuan, interesdunek hilabeteko epean titularrek eskolatzeari buruz hartzen dituzten erabakien aurkako erreklamazioa aurkeztu ahalko diote Hezkuntzako zuzendari nagusiarri; horren ebazpenak amaiera emanen dio bide administratiboari.

**43. artikulua.** Hezkuntzako zuzendari nagusiaren ebazpenen aurkako errekursoak.

Ikasle-postuen adjudikazioari buruz Hezkuntzako zuzendari nagusiak ematen dituen ebazpenek bide administratiboa agortuko dute, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoari jarraituz.

**44. artikulua.** Ikastetxe publikoetako ez-betetzea.

Ikastetxe publikoek ikasleen eskolatzeari buruzko arauak ez betetzeak berekin ekarriko du kasuko administrazio-prozedura irekitzea, balizko erantzukizunak zehazte aldera.

**45. artikulua.** Itunpeko ikastetxe pribatuetako ez-betetzea.

Itunpeko ikastetxeek halako arauak ez betetzeak berekin ekarri ahalko du Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 62.2 artikuluan eta hurrengoetan, indarra duen testuaren arabera, jasotako zehapenak ezartzea; ohikoena ituna erretiratzea izaten da.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Izaera pertsonaleko datuak.

1. Lege honetan ikasleak eskolatzeko aurreikusitako prozesuan zehar erabilitako izaera pertsonaleko datuak direla eta, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari begiratuko zaio.

2. Berariaz, eskolatzeko-prozesuaren garapenean izaera pertsonaleko datuak eskuratzen dituzten pertsonen sekretua gorde beharko dute horiek direla eta. Hala ez bada, kasuko administrazio-prozedura irekiko da, balizko erantzukizunak zehazte aldera.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Indarkeria-ekintzen ondoriozko ikastetxe-aldaketak.

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita batgarren xedapen gehigarrian xedatuari jarraituz, Hezkuntza Administrazioak segurtatuko du genero-indarkeriako ekintzen, eskola-jazarpenaren edo ikaslearen segurtasuna arriskuan jartzen duen beste edozein indarkeria-motaren ondoriozko ikastetxe-aldaketek ukitutako ikasleen berehalako eskolatzeari.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Atxikitze kasuko eskolatzeari.

1. Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek, eskolatzeari-prozesu berri batera jo behar izan gabe ere, beren ikastetxea atxikita dagoen Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako batera sartu ahalko dute, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak onetsitako atxikitze-prozesuari jarraituz.

2. Ikasleen gurasoek edo legezko tutoreek beste ikasle-postu bat eskatu ahalko dute eskolatzeari-prozesuan, atxikitze bidez lortutako ikasle-postuaren erreserbari eutsiz. Hala eta guztiz ere, ikasle-postuaren erreserba horri uko egin ahalko zaio eskolatzeari-prozesuaren deialdiaren urteko aginduan adieraziko den bezala. Atxikitze bidez egokitutako beste Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean behin betiko ikasle-postua lortzeak berekin ekarriko du atxikitze bidez erreserbatutako postua galtzea.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Bigarren Hezkuntzan eskolatzeari lehentasuna.

Musikaren irakaskuntza arautuak eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak batera egiten dituzten ikasleek lehentasuna izanen dute Hezkuntza Administrazioak finkatutako Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan onar ditzaten.

Errendimendu handiko kirol-programak egiten dituzten ikasleei tratamendu bera aplikatuko zaie.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Landa inguruneak eskolatzeari bermea.

Eskolatzeari-prozesua baino lehen, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak ikastetxerik ez duten herrietakoak izan eta eskola-garraioa behar duten ikasleei esleituko die edo esleituko dizkie Departamentuaren hezkuntza-plangintzaren esparruan zehaztutako ikastetxea edo ikastetxeak.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Matrikula aldi baterako etetea.

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren ikasmalara bitarteko hamasei urtetik beherako ikasleek, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan edo itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta daudenean, baldin eta lan-arrazoiak edo lanbidean sakontzeko arrazoiak direla-eta beste udalerrri edo herrialde batzuetara joan behar duten pertsonen familia-agintaritzaren, tutoretzaren edo familia-harrera iraukeren edo adopzioaren aurrekoaren pean badaude, eskolatuta dauden ikastetxeko matrikularen aldi baterako etetea eskatu ahalko dute urtebetetara iristen ez den aldi baterako. Horretarako, eskaera bat aurkeztu beharko dute, ofizialki ezarritako ereduaren arabera, ikastetxeko zuzendaritzan, aipatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuz. Ikastetxeko zuzendaritzak hiru egun balioduneko epean erabakiko du, arrazoiak emanez, eta erabaki hori eskatzaileari komunikatuko zaio. Halaber, 48 orduko gehieneko epean, zuzendaritza nagusiari helaraziko zaizkio ikastetxearen ebazpena eta interesdunaren eskaera. Ikastetxearen ebazpenaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahalko da Ikuskatzailetza Zerbitzuan, hiru egun balioduneko epean.

2. Halaber, funts publikoekin sostengatutako Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzetan eskolatutako ikasleek beren matrikularen aldi baterako etetea lortu ahalko dute matrikulatuta dauden ikastetxean, urtebetetik gorakoa ez den aldi baterako, baldin eta egiaztatzen badute Nafarroako Foru Komunitateaz kanpoko beste ikastetxe batean matrikulatuta daudela. Horretarako, eskaera bat aurkeztu beharko dute, ofizialki ezarritako ereduaren arabera, ikastetxeko zuzendaritzan, aipatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuz. Ikastetxeko zuzendaritzak hiru egun balioduneko epean erabakiko du, arrazoiak emanez, eta erabaki hori eskatzaileari komunikatuko zaio. Halaber, 48 orduko gehieneko epean, zuzendaritza nagusiari helaraziko zaizkio ikastetxearen ebazpena eta interesdunaren eskaera. Ikastetxearen ebazpenaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahalko da Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusian, hiru egun balioduneko epean. Lanbide Heziketako heziketa zikloetako ikasleen kasuan, berariazko araudian begiraturako erreparaturako zaio.

3. Ikasleek xedapen honetan aurreikusitako matrikula aldi baterako etetea ondoz ondo bi kasuz baliatu ahalko dira, baina inolaz ere ezin izanen da urtebeteko gehieneko epea gainditu.

4. Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren aginduaren bidez xedapen honetan aurreikusitako eskaera-ereduak onetsi ahalko dira, bai eta hartan adierazitakotik heldu diren neurriak ere; bereziki, Batxilergoko etapari dagokionez.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Genero-berdintasuna hizkeran.

Zenbait pertsona, lanpostu edo karguri buruz ari denean lege honek, gaztelaniazko testuan, genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasuetan ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko delat horrela, eta postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, aipatutako pertsonen edo kargu edo lanpostu horien titularren sexua edozein dela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan ondorio juridikoen ikuspegitik.

**Azken xedapenetan lehena.** Gaitzea.

Baimena ematen zaio hezkuntzaren arloan eskuduna den departamentuko titularrari lege hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan; bereziki, hurbiltasun linealaren kontzeptua zein herritan aplikatuko den eta hurbiltasun horren distantzia zehazteari dagokionez eta lege honen arau bidezko garapenari dagokionez.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egun berean hartuko du indarra.